



Euskarazko 100 programa baino gehiago

Zenbaki honekin batera, ARGIAren harpidedunek CD bat jaso dute. Bertan Dinux sistema eragilea dago, GNU/Linux sisteman oinarritutako euskarazko sistema eragilea hain zuzen ere.

CDtik zuzenean exekutatu daiteke eta bere baitan kode irekikoak diren euskarazko 100 programa baino gehiago dakartza. Software librearen izanik, euskara eta teknologia berrien esparruan abantaila ugari eskaintzen dituen opari honekin aurten Sareko ARGIAk 10 urte beteko dituela ospatzen hasi nahi dugu.

ELISABETH POMBO

AITOR LÓPEZ DE ABERASTURI Kaixo (www.kaixo.com) atariaren sortzaile izateagatik da ezagun, baina gaur egun Gasteizko Diocesan- nas Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa- ko Institutuan da irakasle. Bertako irakasleek euskarazko softwarearen beharra zutela kontu- ratuta, lantaldea eratu eta Dinux sistema eragilea sortu zuen iaz. Sistema eragile horrek software librearekin euskaraz lanean hasteko eskaintzen dituen abantailak ikusirik, hitzarmena sinatu dugu López Aberasturirekin, gure harpidedunei Dinuxa doan eskaintzeko.

Abantailak

Dinux ez da GNU/Linux-en oinarritutako euskarazko lehen sistema eragilea. Lehenagotik badira beste batzuk: Debian, Mandrake, Ubun-

tu... Baina horien aldean Dinuxek badu bereizgarritasun nagusi bat: CD-tik exekutatu daiteke zuzenean (LiveCD bat da), ordenagailuan instalatu beharrik izan gabe. Hala, erabiltzaileak Linuxekin lehen harremana izan dezake, informatika ezagutza gehiegi izan gabe. Ohitzen joan ahala beraz instalatzeko aukera ere izango du eta nahi badu disko gogorrean bi zati egin ditzake, bat Windows-ekin eta bestea Dinuxekin.


Badago CDtik exekutatu daitekeen euskarazko beste GNU/Linux banaketa bat: Euskal Herriko Unibertsitatearen EHUX sistema eragilea. Baina haren aldean ere Dinuxek badu beste bereizgarritasun bat: euskara hutsezko sistema eragilea da, hau da sistema eragilearekin batera datozen programa gehienak euskaraz daude, guztira ehundik gora: OpenOffice 2.0,

CDtik zuzenean nola exekutatu

1) Konfiguratu BIOS ezarpenetan CD-ROMa abiatzeko lehenengo aukera bezala.

- Ordenagailua abiarazterakoan sakatu F2 edo Supr (ordenagailuaren arabera BIOSean sartzeko).
- Advanced Features aukeratu (BIOSaren arabera).
- Ezarpenetan CD-ROMa lehenengo aukera bezala ezarri –bigarren aukera bezala Floppy edo disketea eta hirugarrena disko gogorra, adibidez–.

2) Berrabiarazi ordenagailua eta Dinux zure ordenagailuan kargatuko da.



Xuxen zuzentzaile ortografikoa, Gimp 2.0 argazkiak kudeatzeko programa, Firefox eta Konqueror nabigatzaileak, Thunderbird posta elektronikoa kudeatzeko tresna eta abar. Hala ere, argitu beharra dago Dinux-en bi bertsio daudela, bata euskarazkoa eta bestea gaztelerazkoa.

Bestalde, Windowseko erabiltzaile batek Dinux erabiltzeko arazorik ez du izango, itxura aldetik Dinux eta Windowsen arteko desberdintasuna oso txikia baita eta horrek ohiko erabiltzailearen ikuspuntutik erakarri egiten du, berau erabiltzea ez baitaia gutziz arrotza egingo.

Software librearen aukerak

Dinux software librea da eta horrek ere euskararen ikuspuntutik interesgarri egiten du, kode irekikoa izanik itzulpenak egitea errazagoa baita; kodea itzuli eta berrerrabili daiteke, ezer ordaindu gabe. Windowsen kodeak aldiz, badu jabea eta hark nahi izanez gero



DANI BLANCO

Aitor López de Aberasturi.

baino ez dira egingo itzulpenak, diruaren truke normalean. Euskarazko software librearen inguruan hainbat pertsona ari dira lanean. Hor daude, esaterako, Librezaile (www.librezale.org) edo EuskalGNU (www.euskalgnu.org) elkarteak, eta Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek ere software libreko hainbat ekimen diruz lagundu dituzte.

Software libreak euskarari egiten dion mesedeaz gain, beste hainbat abantaila aipa daitezke. Adibidez, formatuen arteko malgutasuna. Microsoft Office-ko dokumentu bat Open Office programan arazorik gabe irekiko dugu, baina alderantziz ezinezkoa da. Egia da oraindik orain badirela hainbat programa espezializatu Linuxen erabili ezin direnak, baina López de Aberasturik etorkizun oparoa ikusten dio Linuxi eta aurrerantzean Windowserako garatzen den programa oro Linuxerako ere garatuko dela dio. Gainera, gaur egun badira programak Windows emulatzen dutenak eta beraz, Linuxen Windowseko programak ere erabil ditzakegu. Dena den, errealitateak oraindik Windowsen alde egiten du –orokorrean erabiltzaileen %90ek Windows erabiltzen dute eta %10ek gainontzeko sistema eragileak–.

Garatuz joango den tresna

Kaixoren sortzailearen asmoa Dinux sistema eragilea bizirik mantentzea da. Hau da, beste batzuk egiten dituzten euskarazko itzulpenak Dinuxen gehitzen joan nahi du eta itzuli gabe dauden hainbat programa itzuli, Dinux sistema bizia izan dadin. www.dinux.org web gunean xehetasun gehiago topatuko dituzue eta sistema eragilea bertatik jaitsi daiteke baita ere. ■

<http://www.argaia.com/argaia-astekaria> helbidean, Dinux CDtik zuzenean nola exekutatu azaltzen duen bideoa.

Ezaugarri teknikoak

- ✓ Dinux, Knoppix -Debian-en oinarritutako Linux banaketa bat, CDtik exekutatu funtzionatzen duena- eta Metadistros –Linux banaketa bat sortu ahal izateko tresna bilduma– proiektuetan oinarritutako sistema eragilea da.
- ✓ Kataluniako CATIX ekimenaren euskarazko bertsioa da (www.catix.cat)
- ✓ KDE interfaze grafikoa erabiltzen du –Windowsen itxuraren antz handia duena–.
- ✓ Dinux sistema eragilea PCrako prestatua dago.
- ✓ Exekutatu ahal izateko, ordenagailuak gutxienezko ezaugarri batzuk izan behar ditu:
 - * CPU Intel edo harekin bateragarria (i486 edo berriagoa).
 - * RAM memoria: 32 MB testu moduan lan egiteko, gutxienez 82 MB modu grafikoan aritzeko eta 128 MB Ofimatika aplikazioentzat.
 - * CD-ROM/DVD irakurgailua (IDE/ATAPI, Firewire, USB edo SCSI).
 - * Txartel grafikoa arrunta SVGArekin bateragarria.
 - * Sagu estandarra.